



ESKORIATZAKO UDALEKU IREKIAK

Tratu ona eta ingurune
seguru eta babesleak

Aurkibidea

1. SARRERA

- 1.1. Legeek dakarten paradigma-aldaketa
- 1.2. Haur eta nerabeen eskubideak
- 1.3. Funtsezko kontzeptuak
- 1.4. Indarkeria
 - 1.4.1. Arrisku faktoreak eta indarkeria-motak

2. AISIA HEZIGARRIA

3. NOLA SORTU GUNE SEGURUAK

- 3.1. Zereginak

4. LANERAKO TRESNAK

- 4.1. Jarduera markoa
- 4.2. Begiraleen jokabide-kodea
- 4.3. Protokoloak
- 4.4. Arrisku mapak
- 4.5. Babes ordezkaria
- 4.6. Prestakuntza
- 4.7. Monitorizazioa
- 4.8. Babes zirkuitoa

5. ERANSKINAK

|. Begiraleentzako jokabide-kodea

||. Protokoloak

- Autobusetako protokoloa
- Argazkiak ateratzeko protokoloa
- Datuak tratatzeko protokoloa
- Heziketa premia bereziko protokoloa
- Gaixotasun edo istripu kasuetarako protokoloa
- Udalekuak kanpainan sexu indarkeria kasuetan jarduteko protokolo laburtua.
- Jarrera desegokiak kudeatzeko protokoloa
- Udalekuetara egokitze zailtasunei erantzuteko protokoloa

1. Sarrera

Azken urteotan gure inguruneko haur eta nerabeen ongizateari eta babesari zuzenean eragiten dieten bi lege sartu dira indarrean:

- Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Begiratzeko Babes Integralaren ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoa, (LOPVI)
- EAEko Haur eta Nerabeen otsailaren 15ek 2/2024 Legea

Eusko Jaurlaritzak onartutako Legea zabalagoa da, haur eta nerabeen ongizate osoari begiratzen dio, eta tratu onaren kultura du ardatz. Bete-betean eragiten die haur, nerabe eta gazteen sustapen-arloari eta, honen barruan, aisia hezigarriari. Horregatik garrantzitsua da adinez txikiekin lan egiten dugun pertsona, administrazio eta erakundeek hark arautzen dituen alderdiak ondo ezagutzea.

Nolanahi ere, asmoa ez da araudia osorik azaltzea, baizik eta zer arautzen duen argitzen laguntzea, gure esparruan haurrak eta nerabeak babesteko mekanismoak martxan jarri eta aldaketa sakon eta iraunkor bat eragiten hasteko. Hau da, tresna bat izan nahi du gure zerbitzu, gune eta jarduerak lege horretara egokitzeko, tratu oneko eta babesle izan daitezen.

Adingabeen ongizatea eta tratu ona sustatzeko erronka horretan, legeak funtsezko zeregina esleitzen dio aisia hezigarriari, eta horrek jada gure arloan egiten dugun lana aitortzen du. Izan ere, Aisialdi hezigarriko jardueretan parte-hartzea ezinbestekotzat jotzen da haurren eta nerabeen sozializazio-prozesurako, eta bizitzarako funtsezkoak diren gaitasunak, jarrerak eta trebetasunak eskuratzea ahalbidetzeko.

Dena den, tratu onaren politika gure egiteko moduan dago, gure DNAn, eta orain indarrean dauden legeak hori bultzatu behar dugula agintzen dute. Beraz, bide horretan lanean jarraituko dugu.

1.1. Legeek dakarten paradigma-aldaketa

☉ HAURRAK ETA NERABEAK ESKUBIDE-SUBJEKTU DIRA:

Haien eskubideak eta ongizatea gure erabakien eta esku-hartzeen erdigunean jartzera behartuta gaude; ez dute soilik babesa merezi.

☉ BABES SISTEMIKOA ETA INTEGRALA:

Sistemikoa. Barnean hartzen ditu indarkeriari dagozkion puntu guztiak: sentsibilizatiotik hasita, prebentzioa eta identifikazioa, eta baita kaltearen tratamendua eta erreparazioa ere. Ere desberdinetan ezartzen dituzte neurriak (familia, hezkuntza, kirola eta aisia, arlo digitala, esku-hartze soziala, babes-sistema, osasuna...).

Integrala. Haurren eta nerabeen eskubideak bermatu eta indarkeriaren aurrean babesteko, behar-beharrezkoa da profesional guztiok parte hartzea, baina baita beraiek ere.


© **SUSTAPENEAN ETA PREBENTZIOAN JARTZEN DU FOKUA:**

“Biktima artatzen badugu, berandu iritsi gara. Indarkeria kasuetan gertatu baino lehen esku hartu behar dugu”

Paradigma berriarekin berebiziko garrantzia hartzen dute indarkeria sortu aurreko esku-hartzeek, hau da, sustapenak eta prebentzioak, hain zuzen ere, gure lan-eremuari dagozkionak.

1.2. Haur eta nerabeen eskubideetan oinarritzea

1. Haurrak eta nerabeak **eskubideen titular diren subjektuak** dira
2. Pertsona adingabearen **interes gorena** kontuan izango da.
3. Hurrek eta nerabeek **parte hartzeko** eskubidea dute.
4. Hurrek eta nerabeek **bizitzeko, osotasun fisiko eta psikikoa izateko eta tratu ona jasotzeko** eskubidea dute.
5. **Tratu onaren kultura** sustatu ahal izateko, indarkeria-mota guztiak ezagutzea ezinbestekoa izango da.
6. Indarkeriari aurre egiteko **ikuspegi integrala** kontuan izan behar dugu.
7. Hurrek eta nerabeek **atsedenerako, jolaserako eta aisialdirako** eskubidea dute.



1.3. Funtsezko kontzeptuak

Tratu ona

“Tratu ontzat joko da guraso edo zaintzaileen edo pertsona adingabearen familia-eremuan dauden pertsonen ekintza oro, eta hezkuntza-, osasun-, kirol- zein aisia-eremuko, gizarte-zerbitzuen eremuko, segurtasun-indar eta -kidegoen eremuko, eremu judizialeko eta Justizia Administrazioaren eremuko ekintza oro eta, oro har, herritarren ekintza oro, baldin eta, ordenamendu juridikoak pertsona adingabeei aitortzen dizkien eskubideak errespetatuta, aktiboki sustatzen badituzte elkarrekiko errespetuaren, gizakiaren duintasunaren, bizikidetzaren demokratikoaren, gatazkak modu baketsuan konpontzearen, legearen babes berdinen, aukera-berdintasunaren eta haur eta nerabeen diskriminazio-debekuaren printzipioak. Gainera, tratu onak barnean hartuko ditu hurrek parte hartzeko duten eskubidea eta hurrek beren gaitasunak ahalik eta gehien garatzeko duten eskubidea.”

“Eta bereziki, tratu ontzat joko da pertsona adingabeei behar duten laguntza, zaintza eta babesa ematera bideratutako portaera, haien oinarrizko premia fisikoak, emozionalak, kognitiboak, sozialak eta afektibo-sexualak asetzen eta gaitasunak garatzen laguntzen duena, aukerak sustatuz eta emanez haien autonomia eta norberaren buruarekiko eta gaitasunekiko konfiantza progresiboki areagotzeko. Horretarako, afektua, laguntza, komunikazioa, konpainia, eguneroko bizitzako inplikazioa, elkarrekiko errespetua, gatazken konponbide baketsua, eredu egokiak, orientazioa eta gainbegiratzea emango zaizkie.”

Ingurune seguruak

“Ingurune seguruak da haurren eskubideak errespetatzen dituen eta giro fisiko, psikologiko eta sozial babeslea sustatzen duena, ingurune digitala barne.”

“Hirietako gune seguruak, egokiak eta haien beharretara egokituak sortzea sustatuko da, zeinetan bermatuko baita beren hiri-ingurunean mugitzeko, gozatzeko eta sozialki garatzeko, beren herria ezagutzeko eta, bereziki haurrentzat eta nerabeentzat berariaz bideratutako ekipamenduetarako gunez gozatzeko duten eskubidea.”

Indarkeria

“Indarkeriatzat joko da heldu batek edo pertsona adingabe batek egindako ekintza, ez-egite edo zabarkeriazko tratu oro, baldin eta haurrak eta nerabeak beren eskubideez eta ongizateaz gabetzen baditu, eta, betiere, haien garapen fisiko, psikiko edo sozial ordenatua mehatxatzen edo oztopatzen badu, edonola eta edozeren bidez eginda ere, harremanaren, informazioaren eta komunikazioaren teknologien bidez egindakoa barne, bereziki indarkeria digitala eta noizbehinka, eskuarki nahi modu jarraituan, familia barruan nahiz kanpoan gertatua ere.”

1.4. Indarkeria

Indarkeriak haurrei eta nerabeei eskubideak eta ongizatea kentzen dizkie

- ⊙ Indarkeria ohikoa da haur eta nerabeen bizitzan.
- ⊙ Eguneroko indarkeriak haurren eta nerabeen eskubideak urratzen ditu.
- ⊙ Beren biziraupena eta ongizatea mehatxatzen ditu.
- ⊙ Beren potentzial guztia garatzea eragozten die.
- ⊙ Onartezina da, prebenitu daiteke, giza eskubideen agindu etikoa da, eta legezko betebeharra.
- ⊙ Ondorio fisikoak eta psikologikoak uzten ditu, kasu askotan itzulezinak.
- ⊙ Herrialdeen garapena eta hazkundera mugatzen ditu eta eragin sozial eta ekonomikoa du.

1.4.1. Arrisku-faktoreak eta indarkeria motak

Indarkeriaren inpaktua handiagoa edo txikiagoa izango da honako elementu hauen arabera:

- ⊙ Zer intentsitate duen.
- ⊙ Nork eragiten duen.
- ⊙ Noiz eragiten den: haurra edo nerabea eboluzioaren zer unetan dagoen.



Hori kontuan hartuta, haur eta nerabeen aurkako indarkeria mota eta azpimota desberdinak sailka daitezke eta guztiak hartu beharko ditugu kontuan:

Auto-ezarria

- Suizidioa
- Suizidio-ahalegina eta ideia suizidak
- Auto-lesioak
- Elikadura jokabidearen nahasmenduak: anorexia, bulimia,...

Pertsonen artekoa

ARDURAGABEKERIA

- Behar fisikoen deskuidua: elikadura, higieena eta garbitasuna, segurtasuna, jantzi egokiak, etxebizitzaren baldintzak
- Estimulu falta
- Behar emozionalei eta afektuei arretarik ez ematea
- Zainketa medikoen gabezia (fisiko zein mentala)
- Arau, muga eta balioen gabezia
- Hezkuntzarekin lotutakoa: baliabide gabezia, ikasketak uztea
- Sozializazioarekin lotutakoa: eskolaz kanpoko ekintzak eta aisialdi jarduerak egiteko aukerarik ez

INDARKERIA PSIKOLOGIKOA/EMOZIONALA

- Hizkera / Jokabide desegokia, iraingarria, sexualki probokatzailea, apalgarria eta kulturalki desegokia.
- Mehatxuak
- Isekak eta barregarri uztea
- Gezurrak
- Umiliazioak
- Xantaia
- Manipulazioa
- Isolatzea edo taldetik kanporatzea
- Berdinen arteko indarkeria (bullying, erasoak...)
- Ziberjazarpena
- Ohorea eta intimitatea urratzea

INDARKERIA MATXISTA

- Emakumeen / nesken eta gizonen / mutilen arteko ezberdintasun-egoerak
- Beste indarkeria matxista batzuk: LGTBIQ* kolektiboak
- Bikotekide edo bikotekide ohiaren indarkeria (genero indarkeria)

ADINGABEEK ERAGINDAKO TRATU-TXARRAK

- Gurasoenganako indarkeria praktikatzan duten nerabeak
- Berdinei eragindako indarkeria

INDARKERIA FISIKOA

- Tratu-txar fisikoak (kolpeak, ebakiak, erredurak, astinduak,...)
- Gorputz-zigorak
- Intimitatea urratzea
- Berdinen arteko indarkeria (kolpeak, jipoiak, borrokak, erasoak...)
- Mutilazioak: mutilazio genitalak

INDARKERIA SEXUALA

Sexu-abusua eta -erasoa

- Berdinen artean
- Kontakturik gabe
- Begirada sexualak
- Irudi sexualak ikustea behartzea
- Irudi sexualak sortzea behartuta
- Irudi sexualak partekatzea
- Exhibizionismoa aurrez-aurre edo online

Kontaktuarekin

- Musu behartua
- Sexu-ukitze behartua
- Behartutako ukipen genitala
- Ahozko sexu behartua
- Sarketa behartua

Sexu-abusua sare sozialen bidez

- Sextinga: mezu, argazki eta bideo erotiko edo sexualen trukea bi aldeen baimenarekin
- Sextortsioa: bidalitako argazkiak eta bideo sexualak ezagun edo familiaren artean zabaltzeko mehatxua
- Groominga: heldu batek sare sozialen bidez egindako sexu-jazarpena

SEXU-ESPLOTAZIOA

Kolektiboa

- Emakumeen / nesken aurkako indarkeria
- Eskolako / eskolan ematen den indarkeria
- Haur eta nerabeen datuen (eta irudien) erabilera desegokia
- Datu pribatuak publikoki jakitera ematea
- Komunikabideek eskaintzen dituzten edukiekin lotutakoak
- Pornografia / Sexu abusuko materialak
- Prostituzioa / Haurren sexu esplotazioa
- Lan esparruan gertatzen diren indarkeriak
- Egoera zaugarrian dauden haur eta nerabeak
- Babesgabetasun-egoerak
- Indarkeria eragiten duten haur eta nerabeak

Indarkeria

- Indarkeria matxistak (esparru pribatukoak zein maila estrukturalekoak)
- Sistemak haur eta nerabeen eskubideen babeserako dituen gabeziak eta hutsegiteak
- Aurrekontu banaketa desberdina (adina, generoa...)
- Sentsibilizazio eta trebakuntza gabezia (gizarteak, familiek, sistema desberdinek...)
- Profesionalen prestakuntzan hutsuneak
- Ekipamendu /Gune / Espazio desegokiak
- Baliabide eskasak
- Bigarren biktimizazioa
- Familia eta laneko bizitza bateragarria egiteko (kontziliazioa) zailtasuna
- Gatazka kulturalak
- Pobrezia eta bazterketa soziala



2. Aisia hezigarria

Egiten dugun lanaren garrantzia azpimarratzera dator

Aisialdi hezigarriko jardueretan parte-hartzea ezinbestekotzat jotzen da haurren eta nerabeen sozializazio prozesurako eta bizitzarako funtsezkoak diren gaitasunak, jarrerak eta trebetasunak eskuratzea ahalbidetzen duelako.

“Aisialdi hezigarritzat hartzen da **garapen integralari laguntzen** dioten aisialdiko jardueren multzoa; jarduera horiek haur eta nerabeak parte hartzeko ohituretan, ingurumena errespetatzeko ohituretan edo konpromiso, elkartasun eta gizarte-inklusioreko balioetan heziko dituzte, eta haur eta nerabeei berdinen arteko harremanak eta gizarte-gaitasuneko trebetasunez jabetzen lagunduko diete.”

Gure lana egokitzen ari gara, hau da, egiten duguna berrantolatzen legetara egokitzeko. Hona hemen legeak dioena:

Aisialdi hezigarriko jardueretarako irispidea: *“EAEko administrazio publikoek, bakoitzak bere eskumen-eremuan, jarduketara hauek garatuko dituzte, besteak beste:*

- *Dibertsioaren, aisialdi hezigarriaren eta denbora librearen erabilera-modu osasungarri eta askotarikoen aukera sustatzea.*
- *Jolasteko eta aisialdi hezigarria izateko aukera berak ematea haur eta nerabe guztiei. Horretarako, ekintza positiboko konpentsazio-neurriak hartuko dituzte desgaitasunak dituzten pertsona adingabeen alde edota arrazoi ekonomiko, sozial edo kulturalengatik zaugarritasun sozialeko egoeran daudenen alde.*
- *.....”*

Halaber, desgaitasunen bat duten haur edo nerabeenganako errespetua sustatuko dute; etapa ebolutibo bakoitzeko garapen fisiko, psikiko eta sozialean lagunduko dute; eta **saihestu egingo dituzte edozein diskriminazio mota, jarrera matxistak edo indarkeriazko eta gorrotozko jarrerak** bultzatzen dituzten elementu, mezu edo estereotipoak.

Haur eta nerabeentzako jolas, jostailu eta bideojokoak pertsona adingabeen beharrezanez egokitu beharko zaizkie, eta adinaren araberrako psikomotrizitatearen garapenerako lagungarri izan behar dute, indarrean dagoen araudian galdatutako segurtasun- eta irisgarritasun-baldintzak aintzat hartuta.

Aisia eta astialdiko entitate, zentro eta erakundeak, publiko nahiz pribatuek beren ohiko funtzionamenduan sartu beharko dituzte haurren eta nerabeen kontrako **indarkeria prebenitzeko honako jarduketak hauek**:

- Euskal administrazio publikoek aisialdi hezigarriaren eremuan hartutako **jardun-protokoloak aplikatzea**.
- **Langileei** edozein indarkeria-mota prebenitzeko eta babesteko aplikatu beharreko **protokoloen berri ematea**.
- **Monitorizazio-sistema bat ezartzea**, protokoloak betetzen direla ziurtatzeko.
- **Haur eta nerabeen eskubideak eta eginbeharrak sustatu eta errespetatzeko kultura bultzatzea**, inolako diskriminaziorik gabe, desgaitasunen bat duten pertsonetako eta beste edozein inguruabar pertsonal, familiar edo sozialengatik egoera bereziki zaugarrian daudenetako errespetua barneratuz.
- Neurriak hartzea **aisialdia ez dadin diskriminazio-egoera bihurtu** genero-identitateagatik edo sexu-orientazioagatik, eta haur eta nerabeekin nahiz haien familiekin eta profesionalekin lan egitea, irainak eta adierazpen apalesgarriak eta diskriminatzaileak erabiltzeari uko egin diezaioten.
- **Gatazkak modu baketsuan konpontzeko** metodo alternatiboak erabiltzea sustatzea.
- Haur eta nerabeen **parte-hartze aktiboa sustatzea** haien prestakuntzaren eta garapen integralaren alderdi guztietan.
- Sexu-delitu ziurtagiri negatiboa eskatzea.
- ...



3. Nola sortu gune seguruak

3.1. Zereginak

1. Begirale taldeari guztiaren transmisioa egitea arduraren kontzientzia hartzeko.
2. Inolako indarkeriarik ez baimentzea
3. Inguruneak eta ekintzak ebaluatzea, seguruak izan daitezten. Kontuan hartu beharreko adierazleak:

Ingurune fisikoa:

Udaleku Irekietan zehar erabiliko diren instalazio estalietako irisgarritasuna, segurtasuna eta suteen prebentzioa, espazioaren dimentsioa eta banaketa (mugimendurako tokia, banaketa: txoko ezkutua, ...), beharrezko mantentze-lanak eta garbitasuna, haurren beharrei egokitutako espazioa.

Ingurune emozionala:

Ingurune fisikoa berotasunez hornitzea, segurtasun emozionala sortzeko: berotasuna (ingurunea gure egitea), temperatura, formak eta koloreak, paretan pertsonalizazio sinbolikoa, argia, naturarekin kontaktua (airea, eguzkia eta mugimendua), musika, janaria, entzuteko eta laguntzeko espazioak.

Protagonismoa:

Udalekuetan zehar protagonista izan daitezten bermatzea: taldean, eragiten dieten erabakietan, ekintzetan, ebaluazioan.

Inguruneaz arduratzen diren heldu-kontzienteak.

Zergatik eta zertarako egiten dugu jakitea (norbere buruarekiko kontzientzia, baita artatzen dituzten pertsonen beharraz eta inguruneaz ere), taldean lan egitea, afektibitatea haur guztientzat, eta adierazten jakitea ere bai. Profesional gisa afektibitatea gaitasun bat da, betebeharrak bihurtzen dena.

[\(Claves para la configuración de entornos seguros y protectores. Pepa Horno\)](#)

4. Lanerako tresnak

4.1. Jarduera markoa

Eskoriatzako Udalak markatzen duen politika zehazten du; hau da, funtzionamendua nolakoa izan behar duen zehazten duena.

4.2. Begiraleen jokabide-kodea

Esku-hartzean nolakoa izan behar duen gure jarrera (I. eranskina)

4.3. Protokoloak

Batzuk indarkeria egoerak prebenitzeko izango dira eta beste batzuk behin gertatu denean esku-hartzea nolako izan behar duen zehazten dutenak. Hona hemen zerrenda (II. Eranskina):

■ Prebentzio- protokoloak

- Autobusetako protokoloa
- Datuak tratatzeko protokoloa
- Argazkiak ateratzeko protokoloa
- Heziketa-premia bereziko protokoloa

■ Babes- protokoloak

- Gaixotasun edo istripu kasuetarako protokoloa
- Indarkeria-sexual kasuetarako protokoloa
- Jarrera desegokiak kudeatzeko protokoloa
- Udalekuetara egokitzeko zailtasunei erantzuteko protokoloa

4.4. Arrisku mapak

Arrisku faktoreak ezagutzeko eta zein alderditan esku hartu behar den zehaztea. Arriskuak aztertu eta larriagoak direnak lehenetsiko dira.

4.5. Babes ordezkaria

Gure kasuan zuzendaria izango da, eta hurrek harengana jo ahal izango dute beren ezinegonak eta kezkek azaltzeko edo hari aditzera emateko zer indarkeria- egoera jasan, ikusi edo ezagutu duten. FUNTZIOAK:

- **Bere burua erreferente nagusi modura identifikatzea** begirale, pertsona adingabe edo gurasoen aurrean edo, hala badagokio, tutore edo tutoretza-, harreragile- edo zaintzaile- ahalmenak dituztenen aurrean, hari komunika dakizkion entitate, zentro edo antolakundeetan edo haren ingurunean haurren kontra detektatzen diren indarkeria-kasuak, eta garatu beharreko jarduketak eta hartu beharreko neurriak koordinatzen.
- **Begiraleei jakinaraztea eta zabaltzea** edozein indarkeria-mota prebenitzeko eta indarkeria horietatik babesteko dauden **protokoloak**.
- **Protokolo horiek betetzen direla ziurtatzea**, eta, bereziki, haurren kontrako indarkeria-egoeraren bat detektatzen bada, dagozkion **komunikazioei ekitea**.
- Euskal administrazio publikoek onetsitako protokoloekin bat etorriz, **gizarte-zerbitzu eskudunek esku hartu behar duten kasuak koordinatzea** eta, beharrezkoa dela baloratuz gero, kasuan kasuko **agintariei informazioa ematea**, kalterik egin gabe legeak aurreikusitako kasuetan komunikatzeko eginbeharrari.
- Pertsona adingabeen **datu pertsonalak era ez-zilegian tratatzea** ekar dezaketen egoeretan, **Datuak Babesteko Euskal Agintaritzari berehala komunikatzea**.
- Pertsona adingabeentzat ahalik eta **ongizaterik handiena ziurtatzeko neurriak sustatzea**, baita **haiei tratu ona ematearen kultura** ere.
- Zuzendari edo begirale eta pertsona adingabeen artean **gatzak modu baketsuan konpontzeko** metodo alternatiboen erabilera sustatzea.
- Jarduera eta kirol inklusiboa, oro har, sustatzea, bai eta, orobat, **desgaitasunen** bat edo **zaurgarritasun berezi edo handiago bat** duten pertsona adingabeekiko errespetua.
- **Segurtasuna gainbegiratzea begiraleak kontratatzen direnean**, eta 2/2024 Legearen (Haur eta Nerabeena) **314. artikuluan aipatzen diren betekizunak** bete eta egiaztatzen diren ziurtatzea.


4.6. Prestakuntza

Ekainean zehar egiten diren prestakuntza eta bilera saioak.

4.7. Monitorizazio sistema

- Udal teknikariak eta zuzendariak ekintzen diagnostikoa/azterketa egin
- Udal teknikariak zuzendariarekin: eguneroko jarraipena eta beharrezko bisitak egin
- Sortu diren arazoen komunikazio sistema
- Ebaluazioa
- Udal teknikaria eta zuzendariaren asteroko bilera

4.8. Babes zirkuitoa. Zer egin gertakari baten aurrean.



5. Eranskinak

I. Begiraleentzako jokabide-kodea

1. Begiraleek udalekuetan parte hartzen duten hurrekiko tratu ona bermatuko dute, bai eta zuzendariekiko eta gainerako begiraleekiko ere. Arreta berezia jarri beharko dute parte hartzen duten hurrekiko tratu onarekin, eta horrek esan nahi du:

- a. Ekintzetan borondatez eta behartu gabe parte har dezaten bultzatzea.
- b. Ez iraintzea, ez mehatxatzea, ez beldurtzea, ez zigortzea, ez tratu iraingarria edo gustu txarreko txantxarik dakarren ekintzarik egitea ere.
- c. Parte-hartzaileen eskubideak urratzen dituzten portaerak ez baimentzea, ez eta lotsatzen, isolatzen, estigmatizatzen edo degradatzen dutenak ere
- d. Gorrotoaren, arrazakeriaren, sexismoaren edo homofobiaren portaerarik ez izatea edo onartzea.
- e. Parte-hartzailerik ez diskriminatzea inolako arrazoirengatik.
- f. Parte-hartzaileen eta/edo begiraleen artean zurrumurru faltsuak saihestea.
- g. Parte-hartzaileekiko hizkera edo portaera desagokia, iraingarria, sexualki probokatzailea edo kulturalki desagokia ez erabiltzea; hizkuntza errespetuzkoa, inklusiboa eta ez-mugatzailea zainduz, adinari egokitua.
- h. Tratu oneko eta indarkeriarik gabeko espazioak sustatuko dira udalekuko bizikidetzagune guztietan.

2. Jarduera guztietan, hezkuntza-premia bereziak dituzten haurren partehartzea eta integrazioa sustatuko da.

3. Parte hartzen duten haurren osotasun fisiko, psikiko eta sexueralako arrisku-egoerak ezagutu eta identifikatzeko ahalegina egingo da.

4. Haur bati eragiten dion edozein susmo badago, jokabide-kodea ez betetzearen edo indarkeria-egoeraren berri emango zaio zuzendariari, eta egoera hori argitzen parte hartuko du.

5. Espazio itxi batean parte-hartzaile batekin bakarrik geratzea saihestuko da. (Adi ibili komunera joaterakoan edo gelan bakarrik geratzerakoan).

6. Haurren intimitatea errespetatuko da: ez zaio komunera edo aldageletako bakarkako espazioetara lagunduko beharrezkoa ez bada.

7. Gatazkak edo gorabeherak bitartekaritza- eta hezkuntza-ekintzen bidez konpontzeko ahalegina egingo da, parte-hartzaileei entzunda.

8. Ez da onartuko parte-hartzaileen arteko indarkeria-dinamikarik edo botere-abusurik, ez eta helduengandik datozenak ere. Garrantzitsua izango da indarkeria-dinamiken behaketan ikuspegi feminista txertatzea.

9. Parte-hartzaileen datu pertsonalen konfidentziasuna bermatuko da eta haien irudia babestuko da.
10. Parte-hartzaileen aurrean telefonoa arduraz erabiliko da, eta ez dira parte-hartzaileen irudirik partekatuko.
11. Udalekua amaitzean hurrekin ez da harremanetan jarriko baliabide pertsonalen bidez, hala nola telefono mugikorren, sare sozialen, plataforma digitalen edo posta elektronikoaren bidez.
12. Ezingo da familiekin harremanetan jarri, aldez aurretik zuzendariarekin helarazi beharreko mezua adostu gabe.
13. Ezin da alkoholik, drogarik edo/eta legeak debekatutako bestelako substantziarik kontsumitu udalekuetan.
14. Ezin da erre udalekuetan. Begirale bat erretzailea bada, parte-hartzaileen aurrean ez dagoenean erre beharko du.
15. Begirale-taldeak haurren bizikidetzara-arauek betetzen direla zainduko du.
16. Begiraleak lanerako arropa eroso eta egokia eramango du.
17. Galarazita dago hurrekin izaera politikoko ekitaldiak antolatzea edota horrelakoetan parte hartzea.
18. Ez dago baimenduta programatik kanpoko pertsonak udalekuetan ibiltzea, ezta gaua igarotzea ere (LH5eta LH6ko irteeran).
19. Begiraleak haur taldearekin egongo dira beti.
20. Haurra udalekutik soilik behar bezala justifikatutako kasuetan irten ahal izango da, gurasoen baimenarekin eta haien zaintzapean.
21. Begiraleak behar bezala erabiliko dituzte instalazioak eta hurrei jarrera arduratsua transmitituko diete. (sukaldearen erabileran bereziki).
22. Begiraleek higienaren eta norberaren garbitasunaren arloko ohitura egokiak gainbegiratuko dituzte.
23. Erabat debekatuta dago parte hartzen duten hurrekin harreman intimoak edo sexualak izatea.
24. Erabat debekatuta dago parte hartzen duten haur edo nerabeekin oheratzea.

Garrantzitsua da udalekuetan parte hartzen duten pertsona guztiek jokabide-kodea ezagutzea, betetzea eta besteei bete araztea.

II. Protokoloak

» Autobusetako protokoloa

Haurrak plazatik autobus geltokira begiraleekin batera joango dira. Zuzendaria egongo da autobus geltokian beharrezko zerrendekin prest. Irteerako haur taldeen begirale guztiak egongo dira autobusean.

Autobusaren irteera-tokian, begiraleetako batek haurren presentzia egiaztatuko du. Begirale honek zuzendariari emango dio gertatzen den gorabehera oro.

Haurrak autobusean sartu ahala begiralea zerrenda egiaztatzen joango da.

Begiraleek erantzungo dituzte gurasoek autobusa irten aurretik egiten dituzten kontsulta guztiak.

Bidaian hezitzaileek arduraz eta gertutasunez jokatuko dute hurrekin, bakarrik sentitu ez daitezen eta taldeko partaide izan daitezen, babesa eta tratu ona emanaz.

Bidaia amaitzean, haurrak autobusetik banan bana jaitsi eta elkartuko dira beren arduradunekin. Begiraleek esango diete noiz jaitsi.

Autobusa helmugara iritsi ondoren, begiraleak taldearekin geratuko dira, eta haurrak ez dira bakarrik utziko gurasoek edo tutoreek jaso arte.

Elbarritasun edo moldatzeko arazoren bat duten hurrek arreta berezia behar dute.



» Datuak tratatzeko protokoloa

Teknologia berrien eta komunikabideen gizarte honetan datu pertsonalen trataerak gero eta garrantzia handiagoa dute. Norbanakoaren datuen babesa eta, bereziki, adingabeen eskubideen bermea kontuan hartuta, ezinbestekoa da zenbait arau betetzea haurren inguruko datu pertsonalak erabiltzean eta kudeatzean, hala nola izen-ematean jasotako haur eta familien datu pertsonalen tratamenduan.

DATUEN KUDEAKETA:

- Udaleku Irekien izen ematean emandako datu guztien jabetza Eskoriatzako Udalarena da.
- Datu horiek ezingo dira erabili interes pertsonaletarako.
- Haur eta familien datuak zuzendariari bakarrik emango zaizkio.
- Begiraleari dagokion taldearen datuak bakarrik emango zaizkio.
- Ez da dokumenturik inprimatuko beharrezkoa ez bada.
- Udalekua amaitu ondoren, inprimatutako dokumentuak birrindu egingo dira.
- Dokumentuen fotokopiarik ez da egingo.
- Dokumentuaren kopia digitalik (pen-drivean, edo bestelako gailu digitalean) ezingo da egin.
- Izen emateetatik jasotako informazio guztia (zerrendak, Excel taulak, word dokumentuak...) udalekuak amaitzean birrinduko da edo udal teknikariari emango zaio.



» Argazkiak ateratzeko protokoloa

Teknologia berrien eta komunikabideen gizarte honetan irudi eskubideak gero eta garrantzia handiagoa dute. Norbanakoaren eskubide hauek babestu nahian, eta batez ere adingabekoen eskubideak, bidezkoa iruditzen zaigu arau batzuk betetzea, batez ere haurren inguruko argazkiak edo irudiak hartu eta hauen erabilpena egiterakoan.

ARGAZKI EDO IRUDIEN KUDEAKETA

- Talde bakoitzari astean argazki bat aterako dio zuzendariak eta dagokion taldeari Telegram bidez bidaliko dio.
- Argazkien jabetza Eskoriatzako Udalarena da.
- Argazki eta irudien erabilera ezin izango da helburu pertsonaletara bideratu.
- Eskoriatzako Udalaren baimenik gabe edozein erakunde, talde edo entitatek ezingo du argazki edo irudi hauen erabilpenik egin.
- Eskoriatzako Udalak Web gunean argazkiak zintzilikatzeke garaian taldeko irudiak edo argazkiak erabiliko ditu.
- Ez da partaideen lehen planorik jarriko.
- Argazkiak ez dira manipulatu.
- Ateratuko irudi eta argazkietan, Udaleku Irekietan lantzen diren baloreak irudikatzen saiatuko gara.



» Heziketa premia bereziko protokoloa

Gurasoen ardura da, izen emateko garaian, heziketa premia berezien berri ematea.

Eskari guztiak jaso ondoren, haurren ezaugarriak eta udalekuko ezaugarriak aztertu ondoren, begirale laguntzailea edo espezifikoa jartzen zaio beharren arabera. Hauek dira hezitzaile bakoitzaren ezaugarriak:

Begirale laguntzaileak:

Haien eginkizun nagusia izango da premia fisiko, psikiko, zentzumenezko edo bestelako premia espezifikoak dituzten parte-hartzaileen inklusioa bermatzea, taldeko kide sentiaraziz eta haien trebetasun sozialak nahiz ikaskuntza-gaitasunak ahalik eta gehien garatzen lagunduz.

Behin premia horiek beteta begirale-taldean integratuko da, izan ere, animazio-taldeko kide ere badira eta berezko integrazioa ahalbidetuko dute.

Begirale espezifikoak:

Haien eginkizun nagusia izango da premia fisiko, psikiko, zentzumenezko edo bestelako premia espezifikoak dituzten parte-hartzaileen parte-hartzea eta inklusioa sustatzea, taldeko kide sentiaraziz eta haien trebetasun sozialak zein ikaskuntza-gaitasunak ahalik eta gehien garatzen lagunduz. Hezitzaile taldeko kidea den arren, lehentasuna HPB ko hurrekin egotea da eta bere beharrak asetzea.

Txanda hasi aurretik, eta beharrezkoa denean, hezitzaileak parte-hartzailearen inguruko informazio osagarria eskuratu ahal izan dezan, zuzendariak haurrari buruzko informazio esanguratsua helaraziko dio, eta, beharrezkoa bada, gurasoekin harremanetan jartzea ahalbidetuko da. Halaber, beharrezkoa bada, harremanetan jarri ahal izango da gurasoekin udalekuetan zehar.

➤ Gaixotasun edo istripu kasuetarako protokoloa

Babes-koordinatzaileak edo Zuzendariak aldez aurretik jakin beharko dute Osakidetzako zer osasun- baliabidetara jo beharko duten gaixotasun edo istripu egoera bat ematen denean.

Gaixotasuna

- Koordinatzaileak gaixotasunaren larritasuna baloratuko du eta gurasoei deitu edo ez erabakiko du. Gurasoei deituz gero, haurra Ludotekan egongo da zuzendariarekin gurasoa jasotzera etorri bitartean.
- Adingabeei ez zaie medikaziorik emango medikuaren agindurik gabe, baldin eta etxetik ez badute ekartzen gurasoen baimenarekin.
- Gaixotasun larria edo kutsakorra bada, adingabea familiarekin itzuli beharko da etxera.
- Haurrek ezingo dute gaixotasun sintomekin udalekuetan parte hartu (sukarra).

Erabaki horiek beti hartuko dira udal teknikariarekin koordinatuta.

Istripua

- Istripua izan duen haurraren egoera zuzendariak baloratuko du, eta osasun-arazorik edo ondoriorik egon daitekeela antzemanaz gero, haurra osasun-zentrora edo larrialdi-zerbitzura eramatea erabaki ahal izango du, betiere gurasoen baimena badago.
- Istripu larriagoa bada (traumatismoa, zauri sakonagoak edo beste koadro larri batzuk), koordinatzaileari abisatuko zaio, eta hark eramango du larrialdietara edo, larritasunaren arabera, 112 zenbakira deituko du berehala. Zuzendariak gurasoei deituko die 112 zerbitzuaren jarraibideak jarraitu ondoren. Familiarekiko komunikazio-bide bakarra ezarriko da horrelako egoerentarako, beharrezkoak ez diren kezkek ez transmititzeko (gurasoak bananduta egonez gero, biei jakinarazi behar zaie).
- Gorabehera udal teknikariari jakinaraziko zaio lehenbailehen.
- Diagnostiko medikoaren arabera, gurasoek baloratuko dute jardueran jarraitzea egokia den ala ez.
- Haurrak ospitalean geratu behar badu eta ez badago seniderik bertan, zuzendariak harekin egon beharko du ospitaleko gelan, haren zaintza eta laguntza bermatzeko, senide zuzenak iritsi arte.

Istripu-kasuetan, kontratatutako istripu-aseguruari horren berri emango zaio, horretarako istripu parte batzuetatik dio medikuari eta ondoren haurraren datuekin batera seguru-etxera bidaliko da parte bat.

Medikazioa

Udaleku irekiak izanik, haurrari ez zaio medikaziorik emango. Ezinbestean botikaren bat hartu behar badu edo tratamendu medikoren bat jarraitu, mediku txostena aurkeztu beharko dio gurasoak zuzendariari.

Haur, naiz begiraleei jakin araziko zaie nor izango den medikazioen arduraduna. Egunean zehar medikazioaz arduratzen den profesionalak bermatu beharko du haurrak dagokion tratamendua egiten duela.

» Udalekuak kanpainen sexu indarkeria kasuetan jarduteko protokolo laburtua

1. Egoeraren identifikazioa eta komunikazioa.

Edozein kidek susmoa badu, edo jakiten badu, parte hartzailearen batek indarkeria matxista eta/edo sexu indarkeriako egoera bat jasan duela, nahitaez jakinarazi beharko dio babes ordezariari (zuzendaria).

Erasoren bat egon dela susmatuz gero, honako hau egin beharko dute begirale arduradunek:

- Espazio bat sortzea, ustez eraso jasan duen haurrak gertatutakoa, sentitzen duena eta egin nahi duena adierazteko.
- Haurraren bat-bateko kontakizuna erregistratzea (haren hitzak bere horretan transkribatzea eta kontakizuna zein egoeratan egin duen zehaztea).
- Udalekuko zuzendariari berehala jakinarazi.

Erasoa egiaztatzen bada, honako hau egin behar dute arduradunek:

- Babes ordezariari berehala jakinarazi.

2. Berehalako jarduketak

Jakinarazpen honen ondoren, babeserako ordezariak informazio guztia fitxa espezifikoan jasoko du, idatziz, eta jasotako informazioa eta tartean dauden pertsonen datuak zehaztuko ditu. (JAZARPEN PROTOKOLOKO fitxa)

Kasu guztietan babeserako ordezariak udal teknikariari jakinaraziko dio jarduketa protokoloa abian jarri dela. Udal teknikariak zuzendariak egindako txostena lehenbailehen aztertuko du, eta dagokion esku hartzea proposatuko du.

3. Presazko neurriak

Beharrezko irizten bazaio, behar diren presazko neurriak hartuko dira, babeserako eta kalte handiagoa prebenitzeko. Neurri horiek udal teknikariak edota udal barruko Tratu Onen mahaia (udal Gizarte Zerbitzuak eta Gazteria Zerbitzuak) hartuko ditu, berehala.

- Haurrak berehalako arreta medikoa behar duten lesio fisikoak baditu, udalekuetako zuzendariak osasun-zentrora edo dagokion zerbitzu medikora eramango du.
- Udal teknikariak haurraren familiari egoeraren berri emango dio, salbu eta informazio hori emateak haurraren segurtasuna edo ongizatea arriskuan jar dezakeela baloratzen bada, familia barruko indarkeria kasuetan, besteak beste.
- Hala bada, egoera esku hartzea ezagutzen duten udaleko edo Aldundiko gizarte zerbitzuei jakinaraziko zaie, edo gertakariak jakin ondoren esku hartzeari ekin behar diotenei.

4. Tartean dauden pertsonekin eta kolektiboekin hartu beharreko neurriak

Begirale-taldeak, zuzendari eta udal teknikariarekin bat etorritik, kasu zehatz bakoitzerako neurriak eta jarduerak zehaztuko ditu. Beste edozein egoeratan, honako neurri hauek abiaraziko dira:

Neurriak indarkeria pairatu duen haurarekin:

- Segurtasuna berehala bermatzeko neurriak: Egin nahi duena entzun eta egin beharreko esku hartzeen partaide bihurtu, eta egindako urrats eta hartutako neurri oro jakinarazi.
- Babes eta laguntza neurri espezifikoak hartu, adibidez, behar duen denboran era berezian lagun egiteko pertsona bat izendatzea, jarduerak egokitzea...
- Jarduerak halaber ez uztea, nahi ez badu.

Neurriak jarduketa kaltegarria egin duenarekin edo dutenekin:

- Erasotua distantzia behar badu, eraso egin duena taldez aldatu edo udalekuetatik alboratu ahalko da, baita eraso jasan duenarekin batera erreparazio esku hartze bat egitea ere: erasotua erasotua kontaktua fisikoa eta digitala saihestea eta erasoaren zauria osatzeko beharrezko denborak errespetatzea.
- Erasoa egin duena gainbegiradapean mantentzea, mahaiak zer neurri hartu erabaki arte.
- Erasoa egin duenaren familiarekin harremanetan jartzea, epe luzeko banakako esku hartze bat egitea gomendatzeko.

Jarduketak kideekin:

- Erasoren lanketa egiteko gaitasun kolektiboa indartzea, gertatutakoa azalduta, baina jasan dutenak edo egin dutenak estigmatizatu gabe.
- Beste haur batzuen konpromisoa aktibatzea, berdinen artean ikusten dituzten edo ikusi dituzten sexuagatiko jokabide oldarkorrek arbuizatzeko.
- Gaitasun sozialak, komunikaziokoak, emozionalak eta enpatiakoak garatzeko jarduketak egitea, bitartekaritzako eta berdinen arteko laguntzako jarduerak eginez.

Jarduketak begiraleekin:

- Talde ez-mistoak edo mistoak aktibatzea erasoari aurre egiteko gaitasun kolektiboa hobetzeko.
- Pertsona egokienak identifikatzea, bere profilen arabera, eraso jasan duenarekin, egin duenarekin eta taldearekin lantzeko.
- Gertakariak lantzea ahalbidetzea, betiere esku-hartze goiztiarrerako aukerak baliatuz.

5. Familiei edo legezko arduradunei helaraztea

Udal teknikariak, behar besteko tentuz eta elkarrizketa baten bidez, tartean dauden eta/edo gertakarien parte diren gurasoei edo legezko ordezkariak jakinaraziko diete kasua. Egoerari eta hartutako neurri buruzko informazioa emango dute, eta une oro konfidentzialtasun osoz tratatuko da kasua, legez datuen tratamenduaren arloan ezarritakoa errespetatuz.

Hala badagokio, eta beharrezkotzat jotzen bada, familiari jakinarazi ostean, erabaki ahalko da gertakariak jakinaraztea adingabeak babesteko administrazio eskudunaren zerbitzuei.

Jakinarazpen formala: Jakinaraztea bidezkoa bada, dagokion udal teknikariak idatziz bidaliko du hautemandako babesgabetasun egoerari buruzko informazioa.

» Jarrera desegokiak kudeatzeko protokolo

Haur batek udalekuan parte hartzen duten pertsonentzat ezarritako jarraibide eta arauak onartzen ez dituenetan eta bere portaera oztopo nabarmena denean taldearen martxa onerako, kasuari arreta berezia eskainiko diogu, egoera hori sorrarazi duten arrazoiak aurkitze aldera. Kasu horietan udal teknikariak gertatutakoaren berri izan beharko du, erabaki eta neurriak balioetsi eta horietan laguntzeko.

Inolako zigor fisiko edo psikikorik ez erabiltzea bermatuko da. Horrek ez du esanahi beharrezkotzat jotzen denean diziplinazko neurriak hartu ezin direnik.

Jarraian kasu horietan esku hartzeko protokolo bat aurkezten da. Hemen adierazten diren puntuak adierazitako hurrenkeran landu beharko dira, eta ikusten bada, baten batek ez duela emaitzarik ematen, hurrengora pasako gara:

- 1.- Portaerazko arazoren bat duten haurrak hautematea, hots, arauak modu argi eta errepikatuan hausten dituztenak.
- 2.- Bere begiralea jarrera hori arintzen saiatuko da, jardun horiek berarentzat nahiz taldearentzat negatiboak direla ikusaraziz.
- 3.- Begiraleen arteko bileran egoera planteatuko da, talde pedagogiko osoaren artean erantzun koordinatu bat emate aldera.
- 4.- Zuzendariak bere begiralearekin batera egoera azalduko dio haurrari:
 - Horrela, auto-ebaluazioa egin dezan (esku-hartze horretan modu aktiboan parte hartzera bultzatuz, akuilu modura).
 - Arauak adosten saiatuko dira eta arauak haustetik eratorritako ondorioak ere bai (indartze positiboa landu).
- 5.- Udal teknikariak, zuzendaritzarekin batera, haurraren familiarekin edo arduradunarekin harremanetan jartzeko aukera balioetsiko du, modu horretan, haiei egoeraren berri eman eta egoera gainditzeko lagun dezakeen informazio gehigarria eskuratzeko.
- 6.- Gurasoa, haurra eta udalekuetako arduradunen arteko adostasunak eta konpromisoak topatu.
- 7.-Aukera guztiak agortu badira, udalekuetan ez parte hartzea.

ADI: Parte-hartzaileraren bat udalekura tratu-txarrak jasan izanaren arrastoekin iristen dela ikusten badugu, zuzendariari egoeraren berri eman beharko zaio, denbora galdu gabe.

» Udalekutara egokitzeko zailtasunei erantzuteko protokoloa

Parte-hartzailereren batek udalekuko martxara egokitzeko zailtasunak dituela ikusten denean, garrantzitsua da lehen egunetan arreta berezia eskaintzea kasu horri, egoera horren arrazoiak aurkitu ahal izateko.

Jarraian kasu horietan esku hartzeko protokolo bat aurkezten da. Hemen adierazten diren puntuak adierazitako hurrenkeran landu beharko dira, eta ikusten bada, baten batek ez duela emaitzarik ematen, hurrengora pasako gara:

- 1.- Egokitzeko arazoren bat duten haurrak hautematea (negar egiten dute, bakarrik daude, ez dute jolastu nahi, min arinak dituztela esan ohi dute: sabeleko mina, buruko mina, familia faltan botatzea, etab.)
- 2.- Begiraleak motibazioa gainerakoekin baino gehiago landu beharko du harekin, eta babesa eta laguntza ematen saiatuko da.
- 3.- Denbora libreko jardueretan, begiraleak ohikoa baino arreta handiagoa eskaini beharko dio.
- 4.- Eragindako pertsonarekin egoeraz hitz egin eta zer gertatzen zaion galdetu behar zaio.
- 5.- Egoera erronka pertsonal gisa aurkeztu behar zaio, bere gaitasunetan sinetsiz gero gaitzitzeko gai dela transmitituz.
- 6.- Zuzendariarekin harremanetan jarri beharko da, balora dezan egokia izan daitekeen haurren gurasoekin edo legezko arduradunekin harremanetan jartzea eta egoera kudeatzen lagun dezakeen informazio osagarria biltzea.
- 7.- Aukera guztiak agortu badira, udalekuetan ez parte hartzea.